

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a

639. zenbakia

**UDALBATZA/** Goenkaleko urbanizazioa eta Hirigune Historikoko argiteriarako ia milioi bat euro

## Goenkalen urbanizazio lanak egingo dituzte

EDU MENDIBIL

Astehenekoko osoko bilkuran udalbatzak bi proiektu adjudikatzeko lehiaketa deitzea onartu zuen: alde batetik Goenkalea eta kantoiak urbanizatuko dira eta bestetik eraikin aipagarriaren eta kaleetan argiteria jarriko dira, milioi bat euro inguruko aurrekontuarekin.

Goenkaleko urbanizazioa orain Artekalen eta Arruriagan egiten ari diren lanen jarraipena izango da. Iñaki Aspiazu arkitektoak egindako proiektua da eta Artekalea eta Arruriagan aza-

roan bukatuko dituzte lanak. Lasarteko Ozio enpresak dihardu lanean.

Herri barrua berreskuratzea da egitasmoaren helburuetako bat. Ur hoditeria aldatu eta espaloiak berritzeaz gain, bestelako txukuntze lanak egingo dituzte. Behin Arruriagan eta Goenkalen lanak amaitu ondoren, Goenkaleko lanak adjudikatuta egotea da helburua. Goenkaleko zatiaren aurrekontua 453.115 eurokoa da eta lanak urte amaiera aldera hasiko lirarteke.

**BIZILAGUNAK ETA DENDARIAK HASERRE** Arruriaga eta Artekaleko bizilagun eta dendariak haserre dau-

de eta udaletxera ere zuzendu dira euren keza azaltzeko. Beraien esanetan, "etxebizitzetarako eta lokal komertzialetarako pasoa oztopoz beterik dago. Aurreko astean Artekalea ia erabat itxi zuten. Hasieran agindu zigutena ez dute bete. Kalte dezentte jaso ditugu lanak hasi zirenetik". Arruriagan eta Artekalen trafikoa etenda dago apiriletik.

**ERAIKIN AIPAGARRIENAK ARGIAREKIN** Bestalde, Bergarako Hirigune Historikoko eraikin aipagarriaren eta kaleetan argiteria publiko berria jartzeko proiektua abian jarri du Udalak. Aurrekontua 451.609 eurokoa da.



Galtzada-harria bistan lagako dute Arruriagan, Artekalen eta Goenkalen.

E.M.



### Jatetxe eta tabernetan euskara bultzatuz

Udalak eta Udal Euskaltegiak jatetxe eta tabernetan lanean ari direnendako euskara ikastaroa antolatu dute. Bezeroekin euskaraz aritzeko gaitasuna lortzea da helburua. Ikastaroa (60 ordukoa) urriaren 4tik abenduaren 21era izango da. Izenematea Udal Euskaltegian (943 76 44 53) egin daiteke, irailaren 29a baino lehen.

### LABUR

#### Bedelkarren udako zozketan Maria Pilar Larrañagak jaso du lehen saria

Bedelkarren udako zozketan lehen sariko irabazlea agertzeke zegoen. Azkenik, Maria Pilar Larrañagak jaso du 500 euroko erosketaren bonoa, 44.631 zenbakiari esker. Bigarren saria (300 euro) Amaia Maiorak irabazi zuen eta hirugarrena (200 euro) Pili Goenagak.

#### Juan Maiorak bigarren saria lortu zuen Ordiziako Feriako ganadu lehiaketan

Juan Maiora bergararrak bigarren saria lortu zuen Ordiziako Feriako ganadu lehiaketan, joan den eguaztenean.

Bost eta zortzi urte bitarteko behien lehiaketan saritu zuten Maiora. Basalgokoak 210 euro eta trofeoa jaso zituen. Lehen saria Idiazabalgo Lorea Katarainek eskuratu zuen.



ARTE  
DEKORATIBOA  
Tel.: 943 76 71 05

**Helbide berria:**  
Telesforo Aranzadi 3

Eskulan ikastaroak  
Enkarguak  
Markoztatzea

Salgai: Altzariak margotuta eta margotu gabe  
Eskulanak: Bainikak, Bolilloa  
Egurrarendako tratamendua  
Eskuz egindako bitxiak



**OSASUNA**/ Egun bakarreko bi ikastaro izango dira urriaren 6an eta 7an; dirua itzuliko zaie erretzeari uzten ez dutenei

## Erretzeari lagatzeko ikastaroa antolatu du Gizarte Ongizateko Prebentzio Zerbitzuak

E.M.

Gizarte Ongizate Prebentzio Zerbitzuak antolatuta, erretzeari lagatzeko bi ikastaro egingo dira urriaren 6an eta 7an. Sei orduko hitzaldia izango da egun bakoitzean, eta erretzeari uztea lortzen ez dutenei matrikularen dirua bueltatuko zaie.

Urriaren 6an 15:00etatik 21:00etara izango da ikastaroa eta urriaren 7an, berriz, 09:00etatik 15:00etara. Matrikula 190 eta 290 euro bitartekoa izango da (izena ematen duen jende kopuruaren arabera). Izena emateko epea irailaren 30era arte dago zabalik.

### HAUR HEZKUNTZA IKASTAROA

Era berean, 2-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako eta tutoreendako haur hezkuntzako ikastaroa antolatu dute. Hainbat egoeraren aurrean orientazioa ematea da helburua. Urriatik abendura hamar saio egingo dira, martitzenetan, 15:00etatik 16:45era edo 18:30etik 20:30era. Ikastaro baterako zein besterako argibideak: 943 77 91 26.



Erretzeari uzteko ikastaroa seigarren urtez antolatu du Prebentzio Zerbitzuak.

## LABUR

### Informatika ikastaroak San Joxepen

Erretiratuen egoitzako informatika gelan hainbat ikastaro izango dira urriatik azaroerdialdera. Informatika hasieratik ikastaroa martitzen eta eguenetan izango da, 17:00etatik 19:00etara; argazkilaritzaren gainekoa, astelehenean 11:00etatik 13:00etara; eta, azkenik, edizio ikastaroa eguaztentean egingo da, 11:00etatik 13:00etara.

Izenematea erretiratuen egoitzan egin daiteke. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

### Odol ateratzea eguaztentean Seminarioan

Bergarako Odol Emaleen Elkartek aditzera eman duenez, odol ateratzea egingo dute eguaztentean, irailaren 21ean, Seminarioan, 18:30ean hasita. Odol emaleei bertara joateko dei egin diete elkarteko arduradunek.

Hurrengo odol ateratzea urriaren 5ean izango da, ohiko ordutegian.

# Sirimiri

Eguneko menua • Karta • Plater konbinatuak • Kintadak • Ogitaratekoak



*San Martinetan zatoz geurera!*

**JAIK/** Zapatuan *jaima* jarriko dute Muniben eta herri bazkaria egingo da plazan

# San Martin jaien azken txanpa aste bukaeran

E.M.

Gaur, San Martin eguna, haurren danborrada izango da. 175 neska-mutiko inguru aterako dira. Irteera kultura etxetik egingo dute, 18:00etan, eta ibilbidea honakoa izango da: Masterreka, Ibargarai, Ramon Maria Lili, Bidekurutzeta eta plaza.

Gauean, berriz, Trapu Zaharrrak *Aterpea* antzezlan eskainiko du Munibe plazan, 22:30ean, eta ordu berean suzko erruberak

izango dira. Gauean erromeria izango da San Martin plazan.

## HERRI BAZKARIA ZAPATUAN

Zapatuan, berriz, *jaima* jarriko dute Munibe plazan. Eguerdian eta arratsaldean dantza eta perkusio afrikarrak eta malabarismo ikastaroak izango dira bertan. Bestalde, *txomingeroen* bazkaria antolatu dute koadrilek. Norberak eraman beharko du jatekoa eta edaria eta 13:00etan elkartuko dira plazan. Herritarrei parte

hartzeko deia egin diete. Iñaki Labaka eta Eusebio Lasarteren eskutik euskal kantu zaharrek eta bertso-txisteekin alaituko dute bazkalostea. Arratsaldean Beti-Alai txarangak alaituko ditu kaleak eta 18:45ean haurrentzat bonba japoniarrak izango dira San Martin plazan. Gauean, Tuboekapin eta Makala Sound System taldeek joko dute plazan.

Domekan, pintura lehiaketa, argazki rallya eta txirrindulari lasterketa jokatu dira.



Haurren danborrada 18:00etan aterako da gaur.

BERRIGARA

## Erreileno eta Tostoiaren Kofradiaren ospakizuna domekan Bergaran

Erreileno eta Tostoiaren Kofradiak seigarren kapitulua ospatuko du domekan. Aurten Natalio Juaristi ezaguna, Jose Mari Zezeaga pilotaria, Bergarako Odol Emaileen Elkarte eta Alai-Taldearen izendatuko dituzte kofradiakide berri. Udaletxean 12:15ean egingo duten ekitaldian, omendutakoek izendapen berriaren zina egingo dute ondoko galderari erantzunez: "*Zin egiten duzue Bergararen izen gozoa defendatu eta munduaren lau aldeetara zabaltzea, bai eta bertakoek zein kanpokoek eguneroko otordu guztietan erreilenoak eta tostoiak neurritz jan ditzaten ahaleginak egitea?*"

Orain dela sei urte sortu zenetik Erreileno eta Tostoiaren Kofradiak han eta hemen zabaltu ditu gure gozoen dohainak. Kofradian 23 lagun dira eta Euskal Herriko zein kanpoko kofradien ekitaldietan hartzen dute parte. Kide bakoitzak urtean bi tokitara joateko konpromisoa hartzen du, eta

horrela 25 tokitara iritsi dira aurten.

Domekan, eguerdiko ekitaldiaren aurretik, kanpotik etorriko diren kofradieei ongiatorria egingo zaie Udal Pilotalekuan, 09:30ean. Hainbat kofradia etorriko dira: Guijueloko urdaiazpikoa, Eibarko bakailoa, Beasaingo odolostea, Mantxako gazta, Idiazabalgoa, Altsasuko txistorra, Utiel-Requenako ardoa edo Santanderko zapico. Madeirako ordezkariak ere izango dira. Denera 120 lagun inguru elkartuko dira. Ongietorriaren ondoren, 10:45ean, zeremoniako jantziekin martxa egingo dute Moja Zaharretara eta han meza izango da 11:00etan, Alai Taldeak lagunduta. Jarraian, Udal Txistularien Bandarekin batera kofradietako kideek herri desfilea egingo dute San Martin plazaraino, 11:45ean. Egunari bukaera emateko bazkaria egingo dute Zabala jatetxean. Postrerako ez da erreileno eta tostoiarik faltako.



Hainbat kofradia izango ditugu domekan bisitari Bergaran.

BERRIGARA

## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46    Zubillaga 10  
BERGARA    OÑATI  
943 76 45 53    943 78 24 13

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak    Paper pintatuak  
Moketa eta sintasola    Harea zorrotada  
Iztuku esponjatua    Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

## FRANTSES IRAKASKUNTZA

Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

2005-2006 ikasturtea

Ikastaroaren hasiera:

**urriaren 3a**

Izenematea: irailaren 28ra arte  
Informazio gehiago: 10:00-12:00  
eta 18:00-20:00

943.76.30.55

## disdira

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

DIODO LASERRA




Behin-betiko laser bidezko depilazioa  
emakumezkoendako eta gizonezkoendako

- Medikuek egina
- Hiru hilabete behin
- Tratamendua bukatzeko sei edo zazpi saio

Hasi zaitetz datorren udarako prestatzen  
Galdetu konpromisorik gabe

Barrenkale 35 • Tel.: 943 76 17 27 • BERGARA



# Nobedadeak

Aerobox  
Pilates  
Body-pump



SPINNINGA  
SHINKYOKUSHINKAI KARATEA  
NAGUŠIAK/ UMEAK  
AEROBIKA / STEPA  
MUSKULAZIOA  
SASOIAN EGOTEKOA  
ARETOKO DANTZAK  
SEVILLANAK  
BODY-PUMP  
TAI-CHIA  
MASAJEA  
SAUNA  
SOLARIUMA  
KIROLA EGITEKO OSAGARRIAK  
(arropa, janaria)

EGUNAK AUKERAN ASTELEHENETIK OSTIRALERA	ESKOLA GUZTIETARA JOATEKO AUKERA	BAZKIDEAK SPINNINGeko AUKERA	GUZTIRA EUROTAN
2 EGUN + LARUNBATA PREZIOA: 36,50 € / HILABETE	KARATEA SASOIAN EGOTEKOA AEROBIKA / STEPA	2 ESKOLA 45 MINUTU PREZIOA: 15 € / HILABETE	51,50 € / HILABETE
3 EGUN + LARUNBATA PREZIOA: 40,50 € / HILABETE	BODY-PUMP PILATES AEROBOX		55,50 € / HILABETE
5 EGUN + LARUNBATA PREZIOA: 44,50 € / HILABETE	MUSKULAZIO GELA SAUNA		59,50 € / HILABETE
		SPINNINGA   2 ESKOLA 45 MINUTU + SAUNA PREZIOA: 34 € / HILABETE	

**MENDIA/** Baghirati mendia Himalaian dago (India); bi hilabete egingo dituzte han

## Perez de Arenaza eta Beitia, Baghirati mendira bidean

EDU MENDIBIL

Unai Perez de Arenaza eta Unai Beitia bergarar mendizaleak Indian dira, Baghirati mendiko (6.454 m) paretak eskalatzeko asmoz. Kataluniako beste hiru lagunekin batera, *Estel impossible* deritzon bidea igotzen saiatuko dira hurrengo asteotan.

Espedizioa kideak joan den astean abiatu ziren Indiara eta pare bat hilabete emango dituzte han. Baghirati mendia Indiaren iparraldean dago, Himalaiako eremuan, Gharwal-go eskualdean, hain zuzen.

### EKIALDEKO PARETAN

Hiru bidek zeharkatzen dute Baghiratiko ekialdeko paretan, 1.600 metro dituen. Esan bezala, *Estel impossible* deiturikoa aukeratu dute. Unai Beitiak eta Unai Perez de Arenazak esandakoaren arabera, "bere zailtasunagatik bi errepikapen besterik ez dauka eta zalantzarik gabe biderik tekniko eta zailenetakoa da. Ikusgarria da benetan".



BERRIGARA

Baghirati mendiko ekialdeko paretan arituko dira Beitia eta Perez de Arenaza.

*Baghirati  
eskalatzeko biderik  
tekniko eta  
zailenetakoa  
aukeratu dute*

Bergararrekin batera, Roger, David eta Sidi katalanak dira Indian. Bertako girora moldatu ondoren, hurrengo asteotan ekingo diote paretan eskalatzeari. *Kapsula* sistema jarraituta egingo dute eskalada eta esekitako hamaketan egingo dute lo. Zortzi bat egunean egiteko asmoa dute. Azaro aldera itzuliko dira Indiatik.

## Bergarak liga hasiko du bihar, Amara Berriren aurka, Agorrosinen

E.M.

Erregional mailako Bergarako futbol taldeak ligako lehen partidua jokatuko du bihar, zapatua, Amara Berriren aurka Agorrosinen, 17:00etan.

### HIRU PARTIDU IPINTZAN

Beste hiru partidu jokatuko dira asteburuan Ipintzan: nesken taldeak Almen hartuko du zapatuan, 15:00etan; lehen mailako gazteek Burumendiren aurka jokatuko dute, 19:00etan, eta domekan partidu bakarra izango da: infantil mailako taldeak Mutriku izango du bisitari, 11:30ean.



BERRIGARA

Iaz mailaz jaitsi ondoren, preferentera bueltatzea da mahoneroen helburua.

## LABUR

### San Martin Txirrindulari Sariaren 40. ekitaldia jokatuko da domeka goizean

Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta, San Martin Txirrindulari Sariaren 40. ekitaldia jokatuko da etzi, domeka. 19 eta 20 urteko txirrindulariek hartuko dute parte eta proba Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izango da. Lasterketa 10:00etan hasiko da Matxiategin eta txirrindulariek 106 kilometro egingo dituzte. Helmuga Matxiategin izango da, 12:45ak aldera.


### Nazioarte mailako Bergara Hiria Xake Txapelketa domekan, Ipintza institutuan

Nazioarte mailako Bergara Hiria Xake Txapelketa jokatuko da domekan Ipintza institutuan, 10:00etan. Era berean, Bergarako xake taldeak beste hainbat ekitaldi iragarri ditu aste bukaerarako: bihar, zapatua, autonomia arteko xake txapelketa irekia jokatuko da Ipintzan, 10:00etan, eta arratsaldean Bergarako eskola arteko xake txapelketa izango da xake taldeak Zabalotegiko dorrean duen egoitzan, 15:00etan.

### Pilates eskolak martitzen eta eguenetan eta igerilekua itxita hurrengo astean

Kirol Zerbitzuak antolatuta, spinning, aerobik, saioan egoteko gimnasia, tenis, yoga eta pilates ikastaroak izango dira denboraldi berrian. Pilates ikastaroan beste aukera bat gehitu dute: martitzen eta eguenetan izango dira eskolak, 16:15etik 17:15era. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

Bestalde, hilaren 19tik 24ra (biak barne) Agorrosingo igerilekua itxita egongo da garbiketara orokorra egin ahal izateko.



### Ander Mugurutza garaile Antiguon

Ander Mugurutza eta Apraizek Antiguoko txapelketa eskuratu zuten abuztuaren azkenetan. Finalean 22-11 irabazi zieten Lasari eta Bengoetxeari. Irailaren 24an DV Txapelketako lehen partidua jokatuko du Anderrek. Bestalde, bihar, zapatua, Igor Gutierrezekin batera, Aretxabaletako ordezkarien aurka jokatuko du Udal Pilotalekuan, 13:00etan. Gipuzkoako Txapelketako partidua da biharkoa.

## INPRIMATEGIA

- INPRIMAKIAK OROKORREAN
- INPRIMATZEAK PAPER JARRAITUAN
- EZKONTZARAKO GONBIDAPENAK
- ENKOADERNAZIOAK
- KAUTXUZKO ZIGILUAK

# Garbil

Artzamendi 4 20570 Bergara  
Tel.: 943 76 23 28 faxa: 943 76 54 87  
E-posta: [imprentagarbil@euskalnet.net](mailto:imprentagarbil@euskalnet.net)

## PAPER - DENDA

- BULEGOKO MATERIALA LANTOKIRA ERAMATEN DUGU
- IRAILEAN ESKOLAKO MATERIALEAN ESKAINTZA BEREZIA
- ENPRESA-OPARIAK
- INFORMATIKARAKO OSAGARRIAK

ARGAZKILARITZA/I. San Martin Argazki Rallya

# Jaien gaineko argazkiak atera beharko dituzte rallyko partaideek domekan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aurten lehen aldiz antolatuta dute San Martin Argazki Rallya. Irailaren 18an, domekan, izango da eta edozeinek hartu ahal izango du parte lehiaketan. Gainera, diapositiba emanaldia egingo dute aurkeztutako lanekin sari banaketa egunean, urriaren 14an.

Domeka goizean, Pol-Pol Argazki Taldearen lokalean eman beharko dute izena parte hartu nahi dutenek, goizeko 09:00etatik 09:30era, hamar euro ordainduta.

Izena ematerakoan jai jarduerekin lotutako argazkietarako gaiak jakinaraziko dizkiete.

Goiza argazkiak ateratzen eman ostean, erroiluak entregatu edo txartel digitalak kopia beharko dira, 14:00etan, parte-hartzaileek izena eman duten tokian.

Ondoren, irailaren 26an errelatutako argazki filmak jasoko dira Pol-Polen lokalean, 20:30ak baino lehen. Errebelatutako diapositibak postaz jaso nahi izanez gero, lau euro ordaindu behar dira.


Parte-hartzaileek gai bakoitzeko diapositiba edo irudi digital bana aukeratuko dute, eta argazki taldean aurkeztu urriaren 3an. Argazkietan parte-hartzailearen zenbakia eta aukeratutako gaia adieraziko dira.

Parte-hartzaileek gai bakoitzeko diapositiba edo irudi digital bana aukeratuko dute, eta argazki taldean aurkeztu urriaren 3an. Argazkietan parte-hartzailearen zenbakia eta aukeratutako gaia adieraziko dira.

## SARIAK

Epaimahaikoek aukeraketa egin da, urriaren 14an izango da diapositiba emanaldia eta sari banaketa 20:00etan. Sariak honakoak dira: lehen multzorik onenarentzat 120 euro eta garaikurra; bigarrenarentzat 100 euro eta garaikurra; eta hirugarrenarentzat 80 euro eta garaikurra. Herriko onenarentzat, 60 euro eta garaikurra.

Lehiaketaren gaineko zalan-tzak 943 76 30 90 (Benito) zenbakian argi daitezke.



Jaietako programan agertzen diren ekitaldiak izango dira lehiaketako argazkietarako gai.

## Trapu Zaharra taldearen 'Aterpea' antzezlan gaur Munibe plazan

I.A.

Gaur, egubakoitza, kale antzerkia izango da, 19:30ean, Munibe plazan, Trapu Zaharra taldearen eskutik.

*Aterpea* lana antzeztuko dute Mikel Laskurain, Javi Barandiaran eta Joxean Ben-goetxea aktoreek.

Emazteengandik banatu ostean, *roulotte* batean elkarrekin bizi diren bi gizonen istorioa kontatuko dute. Bizilekutzat duten *roulottearen* espazio mugatuak elkarbizitza arazoak sortuko ditu eta egoerari aurre egin beharko diote.

*Roulottea* bera ekarriko dute, eta inguruko jendea antzerkian bertan barneratuz umore giroko saioa eskaintzea da euren asmoa.



TRAPU ZAHARRA

*Roulotte* batean elkarrekin bizi diren bi gizonen istorioa kontatuko du antzezlanak.

## LABUR

### Ageriko Pintura Lehiaketa izango da domekan herriko kaleetan, Beart elkarteak antolatuta

Irailaren 18an, domekan, Ageriko 32. Pintura Lehiaketa izango da jokoan, 09:00etan hasita. Lanak aurkeztu eta epaimahaia erabakia hartuta, 18:30ean egingo dute sari banaketa Kultura Etxean. Ondoren, lanekin erakusketa egingo dute, hilaren 19tik 30era.

### The Straitjackets rock taldearen kontzertua izango da gaur gauean Jam aretoan

Gaur, egubakoitza, The Straitjackets rock taldeak kontzertua eskainiko du Jam aretoan. Rock instrumental garaikidea egingo du laukoteak. Eurekin jardungo du Longboards hirukoteak ere. Jantxo atea 22:00etan zabalduko dituzte eta sarrerak 15 euro balio du.

### Kontzertua eta drogen analisisa egiteko aukera, Gaztetxearen eskaintza jaietarako

San Martin jaien aitzakian Bergarako gaztetxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Gaur, irailak 16, kontzertua izango da, 23:00etan, Rombos Negros eta Suntsipena taldeekin. Zapatuan, bestalde, Ailaketa taldeak drogen analisisa egiteko aukera eskainiko du gau partean.

# ETXE BERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



Gotzon Inza

BIXAIN HARATEGIKOA

Orain dela hamaika urte azoka zabaldu zutenetik daukate Bixain harategia oñatiar hauek; Gotzon eta Maite bere arreba egoten dira hantxe. Oñatin ere badute harategia; orain dela 21 urte inguru zabaldu zuten Oñatikoa.

Haragirik gustukoena?

Idi txuleta.

Arrandegira askotan joaten zara?

Ez, egia esan, ia sekula ere ez; harakin ona naizen aldetik, ez zait arrainik gustatzen, haragia bakarrik.

Bezeroak zer eskatzen du?

Dena; bezeroak eskatzen du kalitate oneko haragia eta, gainera, merkea.

Azokan zaudete zuek. Horrek ze abantaila eta ze desabantaila ditu?

Azoka egiten denean, zapatuetan, jende asko ibiltzen da, baina, bestela, ez asko.

Azokak indarra galdu du?

Ez; gu orain dela hamaika urtetik gaude hemen, zabaldu zutenetik, eta ordutik, ez da asko aldatu azokako mugimendua.

Jendeak preziatzen ditu bertako produktuak?

Bai, asko, gainera; askotan galdetzen digute haragia nongoa den. Geuk etxean hazitako txahalak eta bildotsak, esaterako, saltzen ditugu dendan.

Zure lanean, zer gustatzen zaizu gehien?

Jendearekin harremanetan egotea, jendeari zerbitzua ematea.

Eta gutxien?

Harategia itxi ondoren, dena jaso eta garbitzen geratu beharra.

Loteria tokatzekotan, zer egingo zenuke?

Erdia inguruko artean banatu, eta gainerakoa, neuretako. Adibidez, Argentinara ehizan egitera joango nintzateke.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Mendira joatea ganadua zaintzera; behiak, ardiak eta behorrak ditugu. Aloña aldea asko gustatzen zait.

Bergaran zer falta dugu?

Azokan postu gehiago; bizitasuna falta zaio azoka honi.

Eta Bergarako gauza onena?

Bezero oso onak ditugu Bergaran.

Amets bat?

Ehun bat urtera arte ondo bizi izatea.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Eider Arzelus

TANZANIA / 2005eko abuztuan

**M**adrilgo Gobernuz Kanpoko Erakunde batekin egon naiz Tanzanian. Aspaldi neukan horrelako bidaia bat egiteko gogo. Nik nahiago nuen Amerika aldera joatea, hizkuntzagatik, batez ere, baina, Tanzanian ere ondo molatu naiz.

Hilabete egin nuen Tanzania; lehendabiziko bi asteetan GKEekin jardun genuen lanean, Mwanga herrian. Gainerako bi asteetan, berriz, turismo pixka bat egin genuen.

Mwanga nekazari herria da, nekazaritzatik bizi dira; lehendabiziko astean adreiluak egiten ibili ginen.

Lurrean zulo bat egin, urez bete eta hankekin masa egiten genuen; gero, moldetan, adreiluak egiten genituen. Adreilu horiekin eraikitzen zituzten hango etxebizitzak. Bigarren astean, berriz, presa baterako harria ateratzen ibili ginen.

Turistek ezagutu ezin dituzten tokiak eta jendea ezagutzeko aukera izan genuen. Oso jende irekia eta atsegina da Tanzaniakoa. Mwanagan pasatu genituen bi asteetan, masai tribuko jendearekin egoteko aukera ere izan genuen; asteburu baten joan ginen eurak bizi ziren herrira.

Turismoko bidaia Moshin hasi genuen, Kilimanjaro inguruan. Bizpahiru egun pasatu geni-



*“Trenean 46 orduko bidaia egin genuen; denetik gertatu zitzaigun: trena errailetik irten zen!”*

*“Lehenengo bi asteetan lanean jardun genuen, Mwanga herrian, GKE batekin”*

zaniako toki turistikoena. Hondartza zoragarriak ditu eta turista asko dago hantxe. Handik, Dar Es Salaamera itzuli, hegazkina hartu genuen eta etxera itzuli ginen.

AINZANE IRIZAR



Masai tribuko gizonezko talde bat, dantzan, jauzika.



ALTEA berria. Deportiboa. Erabilera anitzekoa. Funtzionatza. Egun guztietarako auto aproposa. Segurido bakoitzerako. Azkarra. Espazioarekin. Bihurgune miregarri eta liluragarriak. Goitik beherako aldakuntza detalle bakoitzean.

SEAT ALTEA BERRIA

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxa: 943 76 47 51

**Km 0**  
kostu prezioan

Stock-aren likidazioa

● Toledo ● Cordoba ● Ibiza ● Altea

Seat IBIZA 1.4 75 cv  
2 Airbag, ABS  
Llantak  
Klimatizadorea  
Irrati-kasetea

10.500 €

Toledo TDi 110 Sport  
ABS, ESP, 4 Airbag  
Klimatizadorea, Llantak  
Pintura metalizatua  
Jarleku deportiboak

17.400 € (PREVER PLANA BARNE)




**BONOFOTOA**

XX. mende hasieran oso ezaguna izan zen taberna hau. Nortzuen bilgune izan zen: kontrabandistena, abertzaleena ala baserritarrena?



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**MADDI ALDAZABAL**endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maddi! Galderaren erantzun zuzena: **Jauregi**.



**BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:** .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**San Asensio Errioxako ardoa**  
Beltza edo gorria, 75 cl-ko botila

**2,55 €**  
424 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**ERRETRATUZAHARRA**

BERGARA

**Lau lagun Debako hondartzan, 1929**

**U**da amaitzean dagoen honetan, 1929ko udako argazkia ekarri digute. Belen Arrondok esan digunez, 1929ko irailaren 3an aterata dago, Debako hondartzako arroketan. Bertan agertzen direnek 20 urte zituzten orduan.

Goian: Maria Odriozola (gaur, San Martin egunez, 97 urte egingo lituzkeena) eta Maria Amenabar. Aurrean: Rosario Irizar eta Kontxita Maiztegi.

**Argazkia:** Belen Arrondo



**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

**FARMAZIENTXANDA**

- EGUBAKOITZA, 16**  
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74
- ZAPATUA, 17**  
ESTELLA, Matxiategi 5... 943 76 19 63
- DOMEKA, 18**  
ESTELLA, Matxiategi 5... 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 19**  
MOZOS, Iparragirre 2... 943 76 12 15
- MARTITZENA, 20**  
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 21**  
ZABALA, Barrenkalea 25... 943 76 16 87
- EGUENA, 22**  
GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05

**TELEFONOAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda)... 943 03 54 00
  - Bergarako Udaltzaingoa... 943 77 91 06
  - Antzuolako Udaltzaingoa... 943 76 62 46
  - Ertzaintza... 943 53 47 20
  - Osasun etxea... 943 76 24 40
  - Asepeyo... 943 76 16 43
  - Pakea... 943 76 13 49
  - Angiozarko medikua... 943 78 90 27
  - Antzuolako medikua... 943 76 62 23
  - Odol emaitzak... 943 76 16 24
  - Alkoholiko Anonimoak... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea... 943 77 91 00
  - Antzuolako Udaletxea... 943 76 62 46
  - Udal Artxiboa... 943 77 91 37
  - Igerilekuak... 943 76 20 51
  - Kultura etxea... 943 77 91 58
  - Liburutegia... 943 77 91 62
  - Kiroldegia... 943 76 56 41
  - Mizpirualde egoitza... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia... 943 76 14 92
  - Erregistroa... 943 76 13 15
  - Jardun... 943 76 36 61
  - Postetxea... 943 76 26 65
  - Bedelkar... 943 76 04 68
  - Akulu AEK... 943 76 05 18
  - Udal Euskaltegia... 943 76 44 53
  - Bergarako notariotza... 943 76 10 73

**MEZAK**

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean eta 12:30ean.

**URBANOAK**

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,  
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,  
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20  
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraiuze aurrean), Matxiategi (Mispildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,  
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50  
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),  
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00  
eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolosa (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Kondel), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.



## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer iruditzen zaizu Domingo Irala kalea oinezkoendako izatea?



MERTXE FERNANDEZ




ITZIAR GABILONDO



IKER SANCHEZ



PILI SAN EMETERIO



AGUSTIN MANSO



MARIBEL ANDUEZA

Ez zait erabat ongi iruditzen; autoek nondik ibili behar dute ba? Lur azpiko aparkalekua egin behar dutela ere badiote, baina lehengo bezalako bada, ez da auto askorendako lekuri egongo.

Ni Bidekurutzetan bizi naiz, eta ongi iruditzen zait oinezkoendako ipintzea; baina ez dakit bertako dendariak eta merkatariak zer esango duten. Lanek iraun bitartean kalterako izango da eurendako.

Ez ongi ezta gaizki ere. Ez naiz askotan ibiltzen kale horretan, eta niri ez dit eragiten; beraz, ez zait axola. Autorik ere ez daukat; beraz, ez da nire kalterako. Bertan bizi direnek eman beharko dute iritzia.

Ongi iruditzen zait oinezkoendako izatea kalea. Ume asko ibiltzen da inguru horretan, eta orain dagoen moduan nahiko arrisku-tsua da. Autoak ez dira ondo ikusten bihurgunean, oinezkoen kalterako.

Ongi iruditzen zait kale bat behintzat oinezkoendako izatea. Izan ere, badirudi gehiago direla autoak oinezkoak baino. Ez dut uste lan horiek inori kalterik eragingo diotenik; alderantziz, onerako izango da.

Ongi iruditzen, zait baina ikusi egin beharko da autoekin zer gertatzen den. Nik ez dut gidatzen, baina etxe-koek bai, eta aparkalekuen kontua oso gaizki dago herrian; beraz, gaiari irtenbidea aurkitu behar zaio.


## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK BASERRITARREI** Herritar batek baserritarrek txalotu nahi ditu San Martin azokara euren produktuak ekartzeko egiten duten ahaleginarengatik. "Askotan ez diogu behar besteko garrantzirik ematen egiten duten lan astunari; nahiz eta gero baserriko produktuak gustura asko jan", esan digu. /I.A.

## BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Koskabilluak"



—Sokatik txintxiliz geratu nintzian koskabilluak aora etorri jatazen.

JON IRAEGI

## BESTEKEESANA

Urte oso borobila egin dugu aurten. Denak izan dira onak, baina aurtengoa bikaina izan da benetan.

Bergarako txapelketa irabazteak esanahi berezia du guretzat. Herriko jendearen aurrean aritzeak urduritasun gehiago ematen du, baina polita ere bada. Urtarrilerako erabaki behar dugu dantzan jarraitu ala ez. Nik beste urtebetez jarraitzeko eskatzen diot Asierrri, baina ez du nahi. Hala ere, ez dut amore emango. Atsedean hartzen utziko diot orain eta lasaitutakoan konbentzitzen saiatuko naiz. Dantzak denbora asko kentzen digu. Asier, gainera, Donostian bizi da eta kilometro askotxo egin behar izaten ditugu elkarrekin entseatzeko. MAITE LAZKANO / Dantzaria 'Asteleheneko Goienkaria'/05-09-12

## HAUGIROA!

MINIMOA 13 °C  
Zapatua, 10

MAXIMOA 31 °C  
Egubakoitza, 9

ASTEKO 64 L  
EURIA (l/m<sup>2</sup>)

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 7	24 °C	14 °C	14,4 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 8	23 °C	16 °C	2,4 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 9	31 °C	15 °C	2,9 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 10	24 °C	15 °C	— l/m <sup>2</sup>
Domeka, 11	20 °C	13 °C	41,2 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 12	20 °C	15 °C	2,2 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 13	21 °C	16 °C	0,9 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

## BERAIEKDIÑO/ Jon Suinaga



*Etxe dorreak eta jauregiak*

Villanueva de Vergara. Alfontso X.a Jakintsuak izen hori eman zion herriari 1268 urtean, Bergara sortzerakoan. Horrelakoak kontatzen dizkizute plazan kokatuta dagoen bulego turistikora hurbiltzen bazara. Aukera paregabea gure herria hobeto ezagutzeko; informazio turistiko ederra eta eskura. Eta animatuz gero, bueltatxo bat herritik gidari baten laguntzarekin gure herriko altxorrekini liluratzeko. Dena musu truk.

Kuriositate berriak izango dituzu. Adibidez, turista dezentek bisitatzen gaituztela, uztailean europar asko etortzen direla, abuztuaren berri, estatutik datoz gehienak, kataluniarrak bereziki. Bizkaitik eta Gipuzkoatik ere jende asko hurbiltzen da Bergarako monumentuak ikustera; nafarrek eta arabarrek, ordea, ez daukate hainbeste interes guri buruzkoak jakiteko.

Datu interesgarriak azalduko dizkizute: Bergarari buruz-

ko lehen aipamen dokumentala 1050 urtean agertzen dela; San Pedro eliza eraikita dagoen lekuan, lehenago beste eliza bat zegoela. Bergarako udaletxearen fatxadaren Gaztelako ezkutua dagoela. Edo bandoen arteko gerran, Ozaetarrak eta Gabiria-tarrak zeudela elkarren aurka, herriko boterearekin gelditzeko.

**"Sevillar asko pasatzen da Bergaratik San Pedro barruan dagoen Juan de Mesaren kristoa ikustera"**

Sinestezina da zenbat monumentu dauden herrian eta inguruko auzoetan. Herriko historia ere oso aberatsa da, eta gertaera nabarmenekin apainduta dago.

Txutxu-mutxu kurioso bat da sevillar asko pasatzen direla Bergaratik, eta euren asmo bakarra San Pedro barruan dagoen Juan de Mesaren kristoa ikustea da. Eta batzuek gurutze aurrean ezin izaten diete malkoei eutsi.

Sevillakoek Bergaran zergatik negar egiten duten, edo zaldun tenplarioak San Migeletik pasatu zirela egia den, edo mila bitxikeria gehiago jakiteko onena da plazako bulegotik buelta bat ematea.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 25 05 02  
Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Iratzi Agirreazaldeggi  
Oihana Elortza  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
8.680 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honék erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a / 256. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Autorik Gabeko Eguna egingo dute herrian, datorren eguenean

AINZANE IRIZAR

Automobilak etxean laga eta oinez edo autobusean ibiltzeko eguna izango dugu datorren asteke eguna, irailaren 22a. Autorik Gabeko Eguna antolatu du Udalak egun horretarako. Astelehenean egun horren aurkezpena egin zien alkateak herriko taldeei.

Debagoienean, hiru herrik antolatu dute Autorik Gabeko Eguna, tartean, geureak. Beste bi herriak dira Oñati eta Elgeta.

Egun horren helburuak honakoak dira: kutsadura murriztea, gastuak murriztea, herriko kaleak eta errepideak arintzea eta zerbitzu publikoaren erabilera bultzatzea.

Agenda 21 Udaltaldeko batzarretan behin baino gehiagotan aipatutako gaia da trafikoa eta automobilaren gehiegizko erabilera. Alde batetik, batzar horiekin lotuta dator egun hori. Bestetik, aipatzekoa da datorren urteari begira, Debagoieneko mugikortasunaren arazoari irtenbidea eman nahi diola Mankomunitateak eta zerbitzu publikoaren erabilera bultzatu nahi dutela.



ARTXIBOA

Kalebarrenetik gora, itxi egingo dituzte kaleak eta atzetik bakarrik ibili ahal izango dugu automobilarekin.

### LANTEGIETARA, AUTOBUSEAN

Irailaren 22a laneguna denez, jarri dituzten autobus zerbitzuak, batez ere, herriko lantegietan diharduten bergarrei begira jarri dituzte. Autobusa doan izango da egun osoan zehar. Berga-

ratik Antzuolara, 05:30 inguruan irtengo da eguneko lehenengo autobusa eta 21:30ean azkena. Antzuolatik Bergara aldera, berriz, 07:10ean lehenengo eta hurrengo eguneko 06:10ean azkena, gauetz lan egin dutenak etxe-

ratzeko. Herrikoek bertakoek ere automobila ez erabiltzeko eskatzen dute Udaleko arduradunek. Kalebarrenetik gora, gainera, itxita egongo dira kaleak trafikoa-erendako; atzetik bakarrik ibili ahal izango da.

### LABUR

#### Eskulan erakusketa bi asteburuotan

Datozen bi asteburuotan eskulan erakusketa izango dugu, Olaran etxean. Iazko ikasturtean eskulan ikastaroan ibilitakoen lanak jarriko dituzte ikusgai. Irailaren 17an, 18an, 24an eta 25ean egongo da zabalik erakusketa hori; goizez, 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldetan, berriz, 18:30etik 20:00etara.

#### Donostiara eta Zestoara irteera erretiratuendako

Erretiratuen elkarteak antolatuta, Donostiara eta Zestoara irteera egingo dute, irailaren 29an. Donostian, Elizbarrutiko museoa ikusiko dute; Antzuolako hainbat irudi daude museo horretan. 13:30era arte denbora librea izango dute eta gero Zestoara joango dira; Arozena hotelean bazkalduko dute eta bazkalostean dantzaldia izango dute. Izena emateko aukera izango duzue hilaren 23an eta 24an, 18:00etatik 19:00etara, erretiratuen egoitzan; irteeraren prezioa 25 eurokoa da.

### ESKOLA

## Herri Ikastetxean 165 ikaslek hasi berri dute ikasturtea

AINZANE IRIZAR

Aurreko astean ekin zioten ikasturte berriari Herri Ikastetxeko neska-mutikoek. Guztira, 165 ikasle izango ditu herriko eskolak; aipatzekoa da, gainera, azkenaldiko ume kopuru handiena hasi dela bi urtekoen gelan: 21, hain justu.

Herri Ikastetxeak 165 ikasle eta 18 irakasle izango ditu hasi berri duten ikasturtean. Bi eta bost urte artekoen geletan, 76 umek jardungo dute; Lehen Hezkuntzan, berriz, lehenengo mailatik bos-

garren mailara bitartean, 89 neska-mutiko izango dituzte.

Irakasleak, berriz, 18 izango dira; horiez gain, jangelako arduraduna eta logopeda bat eta beste irakasle bat ditugu, orduka.

Bi hilabete eta erdi inguruko oporraldia izan dute umeek; ekainaren 23tik, hain zuzen ere. Irakasleek, berriz, ekainaren 30etik irailaren 1era.


### HAURRESKOLAN, ZAZPI UME

Irailaren 6an zabaldu ditu berriz ateak Haurreskolak. Ikasturte berri honetan zazpi ume hasi dira hantxe. Sarrera prozesua ume

bakoitzaren arabera denez, ez dira denak batera hasten.

### ZAINZA ZERBITZUA

Aurreko ikasturtean zaintza zerbitzua jartzeko saiakera egin zuten Herri Ikastetxean, baina, ez zen nahiko jende batu. Zaintza zerbitzua da eskolak hasi aurretik edo bukatu ondoren, umeak ikastetxean zaintzeko zerbitzua. Iaz bertan behera geratu zen arren, asmoak aurrera jarraitzen du; hortaz, norbaitek interesa izanez gero, Pausoka elkarteko norbaitegana jo dezake edo eskolara deitu (943 76 62 68).



ARTXIBOA

Haurreskolan zazpi umek eman dute izena.

**IRAKURLIAREN TXOKUA**

**ARROLA MENDIZALE ELKARTEAK HERRITAR GUZTIEI**

Ez genuen uste eskutitz hau idaztera inoiz iritsiko ginenik, baina, tamalez, beste irtenbiderik ezean, zuengana zuzentzen gara.

Jakingo duzun bezala, Arrolako junta bi urtetik behin berritzen da, baina, juntarako jende faltagatik, hirugarren eta azkeneko urtea egingo dugu aurten.

Garai honetan hurrengo urterako egutegia zehazten da, baina, juntakide berri-rik ezean, ez da programarik egingo eta horrek esan nahiko du Arrolaren 30 urteko ibilbide oparoa bertan behera geratuko dela, zoritxarrez.

Hori gerta ez dadin, behar beharrezkoa da zure aportazioa. Gurasoak, gazteak, esperientziadunak... Guztiok zarete beharrezkoak.

Guztion artean, berandu-uegi izan baino lehen ea Arrola Mendizale Elkartea indarberritzen dugun. Horretarako prest baldin bazaude, jarri harremant-eran Arrolako juntako edozein kidearekin, urriaren 31 baino lehen. Honakook osatzen dugu batzordea: Marije Zubimendik, Uraitz Garciak, Olatz Lezetak, Juanma Lasak, Maria Dolores Arbuluk eta Mari Beni Larreak.

ARROLA MENDIZALE ELKARTEAREN ZUZEN-DARITZA BATZORDEA

**IRAKURLIAREN TXOKUA**

KONTUOLAn zure gutuna argitaratzea nahi izanez gero, Bergarako egoitzara ekarri edo kontuola@goiena.com helbidera bidali. Betiere, martitzen goiza aurretik bidaltzea komeni da.

**ELKARRIZKETA**

**JOSU TELLABIDE/ETNOLOGOA**

*“Telleria lantegia 40 urtean itxita egon den arren, materiala ondo zegoen”*

A.I.

**T**elleria uhalgintza lantegian dihardute Josu Tellabidek eta Asier bere lankideak, hango materiala sailkatzeko lanean. Larruzko era guztietako produktuak ikusi ditugu hantxe, Josu Tellabide etnologoarekin berba egitera joan garenean.

**Ze material topatu duzue Telleria etxean?**

Denetik; uhalgintza tailer bat zegoen hementxe, eta material mordoa zegoen: gerrikoak, era guztietako poltsak, uhalak, diruzorroak... Aipatzekoa da militarrendako material mordoa ekoizten zutela; esaterako, obusak eramateko motxilak, kartutxoak edo armak eramateko zorroak... Bestalde, langileen nominak, diru kontuak, katalogoak eta bulegoko bestelako materiala ere bai. Baita, josteko makinak edota zuloak egiteko beste makina bat ere, besteak beste.

**Helburua da material hori berreskuratzea. Dena dago berreskuratze moduan?**


Bai, ez dugu egoera txarrean aurkitu materiala, batez ere, kontuan hartuta 40 bat urtean itxita egon dela tailerra eta ordutik hementxe egon dela material hau guztia. Usoak bizi izan dira Telleria etxeko azkeneko solairu honetan urtetan eta dena oso zikina zegoen, baina, materiala garbituta, ondo geratuko da.

**Zuen lana izan da material guztia sailkatzea, ezta?**

Bai; aurreko astetik dihardugu Asier nire lankideak eta biok, material guztia sailkatzen. Dagoeneko ia dena sailkatuta daukagu; orain, geratzen zaiguna da inbentario zehatza egitea. Gero, beste batzuk arduratuko dira dena behar bezala garbitu, txukundu eta gordetzeaz.

**Tailer hau Gipuzkoan gordetzen den bakarra da, ezta?**

Bai; horregatik, oso interesgarria da Udalak duen asmoa,



A.I.

*“Militarrendako material ugari ekoizten zuten hemen; obusendako motxilak, esaterako”*

interpretazio gune bat edo museotxo bat egitearena, alegia.

**Zaharkinak proiektuan ere jardun zenuen. Dagoeneko nahiko ondo ezagutuko duzue herria.**

Bai, bai; Antzuola oso herri erakargarria da, asko maite dut.

*“Larruzko gauzez gain, nominak, katalogoak eta josteko makinak ere topatu ditugu”*

Diputazioarendako eta Eusko Jaurlaritzarendako ere lan egin izan dut, eraikinak katalogatzen, eta asko ibili izan naiz inguru honetan; gainera, esan behar da hemen inguruan, Bergarak eta Antzuolak dituztela baserririk ederrenak.

**LABUR**

**Finalista Eguna ospatuko dute etzi, domeka, Trekutzen**

Etzi, domeka, ospatuko du Arrola Mendizale Elkartek Finalista Eguna. Trekutzen izango da hori: 09:30ean Herriko Plazan egin dute hitzordua eta handik Trekutzera joango dira, oinez. Trekutzen, salda eta txorizoa banatuko dute.

**Gaztegunea bihar, zapatua, zabalduko dute berriro**

Gaztegunea, gaztetxoendako Errekaldeko lokala, bihar, zapatua, zabalduko dute. Zapatua eta domeketan egongo da zabalik: zapatutan, 16:00etatik 20:00etara eta 21:00etatik 23:00etara; domeketan, berriz, 16:00etatik 21:00etara.

**Bi pilotari berri ditu Olalde elkarteak**

Bi pilotari berri hasi dira Olalden, oñatiarrak biak: Joseba eta Andoni Azkarate. Andonik gazte mailan jokatu du, Mendizabal, Longares eta Iturberekin batera. Andonik, berriz, nagusien mailan, Iban Unanue, Josu Agirre eta Xabier Biterirekin. Oraingo asteburuan hasiko dute denboraldia, Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketarekin.

**Aiherran kanpaldia egingo du Arrolak 24an eta 25ean**

Aiherrakoekin harremana sendotzeko, kanpaldia Aiherran antolatu du Arrolak. Hilaren 24an eta 25ean izango da hori. Mendi irteerak egingo dituzte hantxe; domekan, baita herri bazkaria eta musika emanaldia ere. Irteeraren prezioa 25 euro da; ize- na emateko aukera duzue, gaur, egubakoitza, 19:00etan, Arrolaren lokalean.

**LEKY-BERRI MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko irailaren 16a / 238. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Musika, dantzak, jana eta nahi beste sagardo zapatuan Sagardo Egunean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bederatzigarren aldiz antolatu du aurten gaztetxeak Sagardo Eguna. Zapatuan izango da, eta herrian zazpi sagardo kupel egongo dira. Sagardoa dastatzeaz gain, tortilla lehiaketan parte hartzeko, trikiti zein rock doinuak entzuteko eta dantzarako aukera egongo da.

Urteroko ohiturari jarraituz, aurtengorako ere Sagardo Eguna antolatu dute gaztetxeok. Bihar, zapatua, irailaren 17an, izango da aurtengo hitzordua.

Sagardo denboraldia aspaldi amaitu arren, oraindik bada kupeletan sagardorik gordeta. Elgetara zazpi kupel ekarriko dituzte guztira, eta herriko bost tokitan ipini. Hiru plazan eta gainontzekoak, Sagardo Eguna antolatzeko laguntza eman duten tabernen kanpoko aldean: Haizea tabernan, Espaloia aretoan, Iñaki tabernan eta gaztetxean.

### TORTILLA LEHIAKETA

Kupelak 18:00etan zabalduko dituzte eta bertatik edan nahi dutenek 1,5 euroren truke edalontzia erosi beharko dute plazan.



Plazan hiru sagardo kupel ipiniko dituzte eta edalontziak ere bertan egongo dira salgai 1,5 euroren truke.

Kupelak zabaltzen diren ordu berean ekingo diote tortilla lehiaketari. Antolatzailerek esan digutenez, "aste barñuan hainbat taldek eman du izena, eta egunean

bertan espero dugu jende askok jardutea zartaginekin lanean".

Batzuek zartaginekin astindu bitartean beste batzuek soinu eta panderoak ipiniko dituzte mar-

txan; Elorrioko trikitilariak, hain zuzen ere.

Ordubete izango dute parte-hartzaileek ahalik eta tortilla onenak gertatzeko.

*Arratsaldeko seietan zabalduko dituzte kupelak eta tortilla lehiaketari ekingo diote*

Ondoren sari banaketa egongo da; eta giroak aurrera jarraitzeko hainbat herritarrek dantza saioa prestatu dute. Polkak dantzatuko dituzte plazan.

Gauerako afaria dago iragarrita. 21:00etan hasiko da, eta sagardotegiko menua jango dute bertaratzen direnek. Afalostean ere nahi duenak izango du kanturako zein dantzarako aukerarik; Elorrioko trikitilarien doinurik behintzat ez da faltako.

Eguna amaitzeko, gaueko hamabietan kontzertua izango da gaztetxean. Berako Sex Tysexerf, Arrasateko Radio Wings eta Durangoko Argan Boys taldeek rock doinuak eskainiko dituzte.

Antolatzailerek nahi dute "beste urte batzuetan sortu den giroa ikusita, gutxienez berdintzea eta ahal bada hobetzea".

## HERRITARREN HITZA / Maria Elena Eztenaga • Liburuzaina

### Gizakiaren zahartzarora

Gizakiok 120 urte bizitzeko programatuak gaude. Hala ere, emakumeok 80-83 urte bizitzen gara; gizonenak, berriz, 75 urte. Non dago desfase honen arrazoia?

Dudarik gabe bakoitzaren kode genetikoa eragile uka ezina da, berarekin jaiotzen gara eta momentuz behintzat ezin dugu aldatu.

Hala ere, badaude beste faktore batzuk eragin handia dutenak gure bizitzan; hala nola, ingurumen baldintzak, osasun zerbitzuak eta zientzia ikerketak.

Kasua da, denok elkarri lagundu behar diogula adin aurreratu batera heldu ahal izateko, eta ahal bada osasun fisiko eta adimen osoarekin.

Horretarako, saiatu behar dugu (denok dakigun bezala) ariketa arrunt bat egiten bizitza osoan: elikadura orekatua egin, ez erre, alkohol gutxi edan eta osasun bide edo higiezia zaintzea besteak beste.

Sociedad Española de Medicina Geriátrica-ko, lehendakariak dio: "Para llegar a viejos, es vital perseguir la



**"Elkarri lagundu behar diogu adin aurreratu batera heldu ahal izateko"**

Honetaz ez nago ziur, baina estresa edo bihotzekoak sortzen dituzte.

Beste aholku bat: umorea eta hobby-ren bat edukitzea oso komenigarria da; norberak bere buruari barre egin eta alai egoteak zahartzarorako bidea errazten omen du.

Nepalen, kutzatu gabeko ingurunean eta gure planetako aire garbiena duen herrialdean, bizi dira munduko pertsonarik zaharrenak. Gu ezin gara Nepalera bizitzera joan. Beraz, gizakiaren erronka nagusienera bat zahartzarora heldzea bada, ez dago beste irtenbiderik: umoretsu eta alai bizi, lehen aipatutako arauak bete eta zahartzarora on baten itxaropenarekin amets egin.

## LABUR


### 'Bookcrossing' programa aurki abian Espaloian

Liburuak trukatzeko modu berritzailea da bookcrossing delakoa. Edozein txokotan liburuak utzi, jendeak hartu eta irakurri ostean leku berean zein beste edozeinetan uztea datza. Horretarako, bookcrossing.com helbidean erregistratu beharko da liburuak. Helbide horretan bertan liburuaren gomendio eta kritikak egin eta aurki daitezke. Elgetan, Espaloia bookcrossing-eko leku ofiziala izango da aurkitu beraz, bertan utzi zein hartu ahal izango dira liburuak.

ELKARRIZKETA

JOSE RAMON ARANTZABAL/'EL BOSQUE DE LAS SOMBRAS' FILMEKO PARTAIDE  
"Baserritarraren papera egin dut eta ez dut karakterizazio beharrik izan"

I.A.  
Iturri baserrian *El bosque de las sombras* filmatzen dihardute egunotan. Aldameneko Arantzabal baserriko Jose Ramonek, *Arantzabal txikixak*, martitzeneko saioan paper txiki bat jokatu zuen film horretarako. Hark kontatu dizkigu filmaren nondik norakoak.



Nolatan hartu duzu parte film horretan?

Baserrira nentorrela proposamena egin zidaten, ea paper txiki bat egin nahi nuen esanez. Nik baietz erantzun eta martitzen gauean filmatu genuen nire zatia.

Zein paper egin duzu?

Baserritar baten papera egin dut. Beste bi aktorek niri galdeztzen didate ea beste bi lagun ikusi ditudan, eta nik norantz joan diren esaten diet, eskuarekin Iturri baserria seinalatuz; barbarik ere ez dut egin filmean. Hala ere, nire zatia grabatzeko sei aldiz errepikatu behar izan genuen, ia bi orduz egon ginen. Eurak goizeko seiak arte egoten dira.

Zu zeu baserritarra izanik ez zenuen karakterizatu beharrik izango, ezta?

Txapelik ez dut erabiltzen eta hori jantzi nuen; egun euritsu bat irudikatu behar zenez baita euritarako zamarra bat ere. Gainontzean nire arrokekin azalduko naiz eta makillajerik gabe.

Aurrez aktore lanetan ibilitakoa zera?

Ez, sekula ere ez. Orain dela urte asko, 30 inguru, egin genuen antzerki bat Elgetako frontoi zaharrean, baina gainontzean sekula ez naiz horrelako konfiantza ibili.

"Jende asko dabil filmaketan, baina gaez lan egiten dute eta zaratarik ez dugu sumatu"

Zer moduz doa filmaketa? Asteon hasi dira eta datorren astera arte bertan egongo dira. Gaez egiten dute lan, eta

jende asko dabilen arren, ez dute apenas zaratarik ateratzen, beraz, guretzat lasai doa. Nik neuk aktore famaturik ez dut ikusi oraindik, baina etortzekoak direla badakigu, eta paretan tokatuz gero ea eurekin egoteko aukerarik dugun.

Hemendik Hollywood-era? Bestelako lanik ez egitearren bai, baina ez pentsa hainbeste gustatu zaidanik; denbora luzean egon behar da zain. Beraz, prain artean bezala jarraitu beharko dugu lantegitik etxera eta etxetik lantegira.

KULTURA

Forja lanak eta zinekluba irailean Espaloian

I.A.  
Irailerako kultura emanaldirik ez dute gertatu Espaloioek. Datozen hiru hilabeteetarako programazioa lantzen dihardute eta urria ekitaldiz beteta datorrela aurreratu digute. Bitartean, forja lanen erakusketa egongo da ikusgai eta baita zineklubeko filmak ere.

Irailean ez da kultura programaziorik egongo Espaloian, baina datozen hiru hilabeteetarako ekitaldiak antolatzen diharduten bitartean erakusketa bat izango da ikusgai aretoan.

Euskal Herriko forjarrien tradizioa jasoz, Suoker lantegiko Manu eta Jon eibartarrek, burdin forjatuan egindako 30 lan ipiniko dituzte erakusgai Espaloian.

Burdin lanen erakusketa irailean 16tik 30era bitartean egongo da bertan.

ZINEMAK ETENIK EZ Bestalde, abuztuaren bezala, irailean ere ez dute etenik izango zineklubeko emanaldiek. Eguazteno izango dira, 21:30ean.

Irailaren 21ean *El conflicto de los hermanos Marx* filma emanango dute. Marx anaiena da zinemaren historiako komedia klasiko hau. Irailaren 28an, berriz, *La vida de Brian* komedia. Bazkideendako sarrera doan izango da; gainontzekoendako bi euro.

Iraileko etenaren ostean, urriko programazioa lantzen dihardute, eta aurrerapena egin dute Espaloitik: kantautoreen emanaldia, erakusketa eta jazz lehiaketa egongo dira, besteak beste.



La vida de Brian filma irailaren 28an emango dute.

KANPAINA

Arratoien aurka pozoia ipiniko dute herri guztian gaurtik aurrera

I.A.  
Udalak gaur bertan ipini du abian arratoien aurkako aurtengo kanpaina. Ia urtero egin ohi du horrelako ekintzaren bat, baina azkenaldian behar handiagoa sumatuta, kanpaina berezia egitea erabaki dute.

Udaletxean urte guztian barrena egoten da arratoien aurkako pozoia, norbaitek bere etxe inguruan arratoiak dabiltzala sumatuko balu doan hartu eta erabili ahal izateko.

Patxi Basauri alkateak esan digunez, "azkenaldian herrian obra asko egiten dihardute eta lurrak mugitzeak baliteke eragina izatea inoiz baino arratoi gehiago agertzeko. Herriarren aldetik keza gehiago jaso dugu azkenaldian, horregatik gaur bertan hasi gara kanpainarekin".

IRAILETIK ABENDURA Gaur, irailaren 16an, ipini dute pozoia herri guztian barrena eta hilabetea amaitu bitartean astero ipiniko dute, pozoia desagertu den lekuetan berriz kopuru bera botaz.

Urriaren 7an, ipiniko dute pozoia arratoi gehien ibili diren lekuetan, eta astero berrituko da txoko hauetan.

Abenduaren 16an, eta hortik aurrera astero hilabete osoan, arratoiak pozoia gehien desagerrarazi duten tokietan berriz ipiniko dute; eta herriko beste txokoen jarraipena ere egingo da.

Bestalde, urte guztian herriarren eskaerak betez, pozoia behar den tokietan jarriko da.

LABUR

Urriaren 8rako Nafarroan barrenako irteera gastronomikoa antolatu dute

Nafarroara irteera izango da datorren urriaren 8an, eta nahi duenak zabalik du izena emateko epea. 08:00etan Elgetan abiatu eta Oliten hamarretakoa egingo dute; handik Zangozara joango dira txikiteoa egitera. Bazkaria Xabierko gazteluan izango da, El Meson hotelean. Bueltan bidean geldituko dira askaltzeko. Irteeran parte hartu nahi dutenek 943 76 23 45 telefonora deitu beharko dute. Bidaia eta jatorduen truke 44 euro ordainduko ditu bakoitzak.



RECYDE, S.A.  
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95  
ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a / 19. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

## 450 ume dantzan domekan, Haurren Egunean

OIHANA ELORTZA

Irailaren hirugarren domekan Haurren Eguna ospatzen da Oñatin. Aurtengoa, 35.ena, domekan egingo dute, etzi. Hego Euskal Herriko etorritako 13 dantza taldek hartuko dute parte, 450 ume inguruk guztira. Migel Biain txistulari zena ere gogoan izango dute.

Oñatiko Oñatz dantza taldeaz gain, Hego Euskal Herriko beste 12 dantza talde etorriko dira etzi, domeka, Oñatira. Haurren Eguna ospatuko dute herrian domekan, eta 450 ume dantzari inguruk pasatuko dute eguna Oñatin.

Gernika, Lizarra, Legazpi, Sestao, Arrasate, Antzuola, Soraluze, Bergara, Zarautz, Aretxabaleta, Azkoitia eta Oñatiko ume dantzariak 10:00etan dute lehen dantzaren hitzordua, Otadui zuhaitzian. Herriko kaleetan egingo dute dantza goizean, eta herriko plazan, arratsaldean. Bazkaltzera, berriz, oñatiarren etxeetara joango dira ume batzuk, eta herriko elkarteetara beste batzuk.



ARTXIBOA

Guztira, 13 dantza talde eta 450 ume dantzari inguru izango dira domekan Oñatin.

### MIGEL BIAIN GOGOAN

Aurten 35. aldiz egingo dute Haurren Eguna Oñatin. Orain arteko guztietan hartu zuen parte

Migel Biain txistulari zenak eta gogoan izango dute domekan. Aureskua, bertsolariak eta plaka prestatu dituzte beretako.

## GANBARAREN KANTU TAILERRA

## Txikienak abesbatzen munduan sartzeko proiektua du Ganbarak

O.E.

Kantu tailerra sortu du Ganbara Abesbatzak. 5-6 sei urte dituzten umeei zuzendua dagoen proiektua burutu dute. Txikienak abesbatzen munduan sar daitezten lortu gura du Ganbara Abesbatzak, era dinamikoan: perkusio instrumentuak egiten eta jotzen, dantzan edo kantuan, adibidez.

Bestetik, Ganbara Txikitxo eta Ganbara Txiki taldeetan izena emateko dei egin dute berriro, iaz jende askok ezin izan zuen-eta parte hartu proiektu honetan.



GANBARA

Orain, 75 ume daude Ganbara Txiki eta Txikitxoan.

## LABUR

### Odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, ohiko orduan eta tokian

Odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza. Ohiko tokian eta orduan dute hitzordua odol emaileek, Txantxiku Ikastolan, 18:30ean. Donostiatik etorritako lantaldea arduratuko da odol ateratzeaz. Oñatin, 900 odol emaile inguru daude eta horietatik 700 dira ohikoak. Urtean hamar ateratze egiten dituzte, eta iraila jende gehien joaten den hilabetea da.

### Txandak eta Ganbarak kontzertua antolatu dute, Guatemalan liburutegia egiteko

Txanda dendarien elkarteak kontzertua antolatu du biharko, zapatua. Guatemalan liburutegi bat eraikitzen laguntzeko antolatu du kontzertua. Ganbara abesbatzak eskainiko du kontzertua eta Agustindarren elizan izango da, iluntzeko mezaren ostean, 20:00ak aldera. MUko hiru ikaslek liburutegi bat eraiki nahi dute Guatemalako Santa Maria Tzejá eskualdean, eta proiektu horretan lagundu gura die honela Txandak. Kontzertua doan izango da eta amaieran borondatea eskatuko dute.

## PRENTSAURREKOA



Batasuna, Ereitten, LAB eta Askatasuneko ordezkariak zeuden prentsaurrekoan.

## Ezker Abertzalea, bi gazte-guneen alde

O.E.

Gaztelekuak zein Gaztetxeak "bide paraleloak" eraman dezaketela uste du Ezker Abertzaleak, "baldin eta norberarekiko askatasuna zein elkarbizitzarako oinarriko arauak errespetatzen diren". Gazteriaren inguruan azken hilabeteotan sortu diren gertakizunen inguruko iritzia emateko prentsaurrekoa deitu zuen martitzenean Ezker Aber-

tzaleak. Haren iritziz, gazte-gune biak dira zilegizkoak Oñatin. Gazteleku eta Gaztetxea, "bakotzak gazteen sektore banari erantzuten diotelako".

Bestalde, Udalaren jarrera salatu zuen, "oztopoak jartzen" hasi delako. Gaztetxea okupatu zutenetik, gazteria "EAJren mehatxupean" bizi dela ere esan zuen. "Bi aldeen arteko akordioa bilatzea" dela bidea gaineratu zuen Ezker Abertzaleak.




gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

Eraman  
dotoretasuna  
zure etxera



## Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?



Mixel González  
Postaria

Blanca Daubagna  
Jaurfartzako langilea

David Arnaiz  
Ikaslea

Rosangela De Oliveira  
Zaharbertzalea

Magdalena Cuesta  
Erizaina

Jabier Lejarzegi  
Erretiratua

Paki Mendizabal  
Etxekoandrea

Cristina Rodríguez  
Langabea

### 2005/2006 EUSKARA IKASTAROAK

**Eskaintza:** EUSKALDUNTZE maila guztiak ALFABETATZE, EGA, eta EGATik gorakoa.

**Egokitutako taldeak:** guraso, merkatari, etorkin, enpresa, Bergarako euskara, etb. Multimedia gela.

**Azterketak prestatzeko:** EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK. HABEren diplomak ateratzeko azterketa euskaltegian bertan.

**Erritmoak:** Bi ordukoa (iraila-ekaina) / hiru ordukoa (iraila-ekaina) / bost ordukoa (iraila-otsaila edo otsaila-ekaina). Astean bi egunetan bi ordu eta erdi (EGA).

Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere eskain daitezke.

**Bulego ordutegia:** 08:30-13:00 / 14:30-18:30. Ostiraletan: 08:00-15:00

16 urtetik gorakoentzat

**Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu**

### Matrikula zabalik

24 urte euskara irakasten  
Maila guztiak  
Ordutegi zabala  
Bekak/ HABEren diplomak...

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA  
Zabalotegi, 13 | 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net  
berg.euskudal@euskalnet.net




www.udaleuskaltegiak.net

# UGARTE

AROTZEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean



- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04



## Ondo pasau San Martinak!



BERGARAKO UDALA





Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 50. alia

## IEPA LAGUNOK!

**A**spaldiko lagunok! Hemen nator berriz be oporretatik bueltan. Zelako ondo ibilli naizen ni hondartzan, mendixan, igerixan, bizikletan,...Eta zuek zelan ibilli zarete oporretan? Ondo ezta? Ze pena oporrak hain motzak izatia, e? Eta oin ikasturte berrixa hasiko da, baiña guk ondo pasatzen jarraituko dogu, jakiña! Gaiñera ni pilak kargauta nator eta zuekin primeran pasatzeko gogo haundixarekin nago. Zer, hasiko gara jolasian? Eta gogoratu! Gurasuei be laguntzeko esan!



A! eta ondo-ondo pasau San Martiñetan eta danborrari gogor eragin!

## ERREZETIA

### OGI-PIZZA

Osagaixak (lau lagunendako):

- Moldeko ogi xerrak ("Bimbo"estilokuak): 8 ogi-xerra
- Tomate egindakua: lata txiki baten erdixa
- Oliba olixua: 3 goillarakada
- Piparrauts gorrixa: goillarakada txiki bat
- Urdaiazpikua: 100 gramu
- Gaztai birrindua
- Gaztai-xerrak: 8-10
- Atuna: lata txiki bat
- Olibak edo azeitunak: pakete txiki bat

Zure gustoko beste osagai batzuk be aukeratu zeinke.

## URREZKO ARAUAK

**Z**ure lagun bati zurekin jolasian egitteko proposamena egin nahi dotsazunian, gogoratu egizu:

- Proposamenak geroaldixan egitten dira, eta, hortaz, proposamen esaldixetan aditzarekin beti -ko/-go bukaerak erabiltzia komeni da.
- *Jolastu* esaten dogunian aditza *naiz, gara* eta halakua izan bihar da, eta ez ~~dot, dogu~~, ... Begiratu adibidiak:

- Baloia *jolastuko* gara?
- *Jolasian egingo dogu* baloiarekin?
- Bale-baleka *ibilliko* gara?
- Pote-poteka *jolastuko* gara?
- Futbolian *egingo* dogu?



- Baloiarekin *jolasten dogu*?
- Bale-baleka *ibiltzen* gara?
- Pote-poteka *jolasten* gara?
- Futbolian *egitten* dogu?



Zela gertatu pizza:

- Ogi xerrak laberako bandeja edo erretillu batian jarri. Oiñarri moduan, ogixaren gaiñian gaztai-xerra bana jarri. Beste osagaixak (tomatia, atuna, urdaiazpikua, piparrautsa eta olixua) nahastu eta gaztaian gaiñian ipiñi.
- Honen gaiñian olibak jarri, eta gaiñetik gaztai birrinduez tapatu.
- Ogi xerren bandeja labian sartu, gaiñerretzeko.
- 4-5 miñututara, bandeja etara, bi zapirekin helduta eta labia ikutu barik, eta gertu dago jateko!



## OHARRA

Hemendik aurrera jolas bakoitza marrazki batekin juango da, honetxek dira:



Loria: 3-6 urteko umeentzat gomendatua



Baloia: 7-9 urteko umeentzat gomendatua





Kometia: 10-12 urteko umeentzat gomendatua

# JOLASA

Lotu irudixak eta zenbakixak. Zuk zela esango zontsake lagunari zurekin jolasian egitteko?

- 1 Sokasaltuan ibilliko gara?
- 2 Txorro-morroka ibilliko gara?
- 3 Saskibaloian egingo dogu?
- 4 Txirristaka ibilliko gara?
- 5 Zabuka ibilliko gara?
- 6 Nerekin patineta ibilliko zara?
- 7 Tortoloxka egingo dogu?



## KOMIKIXA

Kaixo, arratsalde on, entzuleok. Lehengo egunian Realak galdu egin zeban, baiña gaur Bartzeklonaren kontra irabazi egingo da. Partidua hastera doia. Bat, bi, hiru...eta hasi da!

"Nihatek Rekarteri, Rekartek Labakari, zutoiña ... eta gola!"

LEHENENGO ZATIA BUKATU DA

BIGARREN ZATIA HASI DA

Partidua bertan behera geratu da eta markagailua hau da: bat eta huts

Reala Barcelona

Egilea: Mikel M. eta Julen S. Ikastetxia: Mariaren Lagundia

# ESKULANAK



## KOMIKI ORRIEKIN GUTUNAZALA

Ez bota zakarrantzira etxian daukazuen komiki zaharrak. Honek berriz erabili geinke gutunen azalak apaintzeko.

Gutunaza gertatzeko hauxe biharko ziñuke:

- Gutun bat/ • Komiki zaharrak /• Errotulagaillu beltza
- Guraizak/ • Paper zurixa/ • Kartuliña bat / • Erregelia/ • Kolia



1) Hartu gutunazala eta zabaldu; kontuz, apurtu barik, koladun aldiak bereizterakuan.

Koladun alde bakoitzian puntu bana margotu.



7) Hementxe daukazu koloretako gutunazal eder askua. Ez dago bape gaizki, ezta?

Zergaittik ez dozu oin zoriontzeko gutuntxo bat gertatzen gutunazalaren barruan sartzeko? Oso erreza da:



2) Aukeratu oso gustoko dozun komiki zati bat; jarri gutuna komikixaren gaiñian eta ertzak errotulagaillu beltzarekin erreparatu. .



8) Kartulina zati bat billatu eta ebagi. Gutunazala baiño txikixagua egin, gutunazala ixterakuan kartulinia barruan kabitzeko. Pertsonaia baten marrazki bat aukeratu eta kartulinaren aurrekaldian pegatu.



3) Kontu haundixarekin gutunazalaren irudixa ebagi.



9) Orri zuri batian komiki-xetako pertsonaien berbak jartzeko erabiltzen diran bi "bokadillo" edo zirkulu margotu eta ebagi.



4) Tolostu komikixa, hasieran gutunazala zeguan bezela.




10) Ebagittako orri-zati bat koliarekin igurtzi eta aukeratu dozun marrazkixaren gaiñian pegatu, pertsonaiaren onduan, orri-zatixa ahotik urtengo balitzako bezela.



5) Oin komikixa berriz zabaldu eta lisatu, eta puntuak margotu, komikixari kola nun emon bihar jakon jakitzeko.



11) Kontu haundixarekin, pegatutako zati zurixaren ertza errotugalagaillu beltzez marra bat margotuz erreparatu, eta gero zati zurixaren barruan nahi dozun mezua idatzi: Zorionak!



6) Kolia emon puntudun aldietan. Oin, kontu haundixarekin, komikixa berrigutunazalaren moduan tolostu, koladun aldietatik hasitta.



12) Beste "bokadillo" edo zirkulu zurixa gutunazalaren kanpoko aldiian pegatu, eta bestiarekin egin dozun moduan ertzak beltzez margotu. Gero gutuna bialduko dotsazun pertsonaren izen-abizenak eta helbidia idatzi.

Kitto! Hemen daukazu komiki-gutun eta gutunazal poli-polittak. Ahaleginddu zaitte eta zuk be egizuz, sekulako artistia zara !

# IPUIÑA

## ARANGIOKO HAITZETAN

Gurasuak seme-alabei kontatzeko ipuiña



Anboto eta Aramaixo artian. Arangio deitzen jakon leku bat dago, haitzez beteta. Arangioko haitz horretan, mutil bat artzain ibiltzen zan bere ardixekin larrietan gora, larrietan behera.

Noizian behin inguruko lamiñak irtetzen jakon. Danak dantzan eta aidian ibiltzen zeben artzain gaztia. Eta bera pozik, jakiña! Hain ederrak ziran lamiña horrek...

Lamiñetako batek egunero laguntzen zotsan etxeraño eta halako baten elkarrekin ezkontzeko asmua hartu zeben.



Lamiñak, oroigarri moduan, ezkerreko eskuaren bihartz txikixan eraztun bat ipiñi zotsan. Oso pozik zeren bixak.

Mutilla etxera juan eta berri ona emon zotsan amari:

-Ama, nik be oingo honetan ezkondu egin bihar dot.

-Zeiñekin ba, seme?-galdetu zotsan amak zihero harrittuta.

-Neska eder eta polit batekin. Basora etortzen jat beti.

-Gehixago barik ezkondu?

-Bai, ama.

Ama ez zeguan oso ziur ezkontza horrekin eta badaezpada be, abadiarengana eruan zeban mutilla. Dana kontatu zotsen eta abadiak hala esan zotsan mutillari:

-Begiratuixozuz hankak neska horri, ia zelakuak dauzkan.

Mutilla, hurrengo egunian, beti bezela abiatu zan Arangioko haitzetarantz bere ardixekin. Lamiña be etorri jakon betiko antzera eta egun osua elkarrekin emon zeben.



Illuntzerako etxerantz abiatu zan baiña bidian, abadiaren etxian geratu zan lamiñaren hanken berri emotera:

-Abade jauna, neskiak arata-hankak dauzka.

-Emoixozu bueltan eraztuna orduan, lamiña bat da eta.

Hurrengo egunian juan zan berriz mutilla Arangiora eta lamiña agertu jakonian eraztuna bueltan emon nahi izan zotsan, baina bihetzetik etara ezinda zebillen. Tira eta tira... baiña alferra zan. Ezin zeban eraztuna etara.

Azkenian, bihartz txikixa labana batekin ebagi eta zapla! Lamiñari bota zotsan eraztun eta guzti. Etxera antxintxika zetorrela, atzetik jarraitu ei zotsan lamiñak. Ohian sartu zan mutilla eta ez zan gehixago jaiki.

